

LURDESKO AGUR MARIA

***AGUR AGUR AGUR MARIA
AGUR AGUR AGUR MARIA***

1

Euskalerritik gatoz
pozez Lurdesera,
bihotzez maite dogun
Ama ikustera.

2

Harkaitz zuloan zagoz
zuri ta urdina,
Zu Ama ikustean
hau poz atsegina

3

Gaixo, makal ta larri
gatoz gaur Zugana,
erregu gure alde
Amatxo laztana.

4

Biderik bide goaz
gaur Amaren bila,
Beragaz alkartzea
pozgarri dedila

5

Ume, gazte, nagusi
deika gagoz Zuri,
osasun, bake, grazi
gugana isuri.

6

Gogoratzen deutsuguz
senide ta lagun,
guztioi emon, Ama,
bake ta osasun.

7

Euskalerrian bada
negar ta nekea,
lortu daigula, Ama,
poza ta bakea.

8

Lantegi ta uriak
Itsas ta baserri...
Ama, bedeinkatu Zeuk
gure Euskalerri.

9

Gorde daiguzan ondo
Amaren esanak,
Berak onetsi daizan
gure otoitz, lanak.

10

Gure kristau Eleiza
bizi da Bizkaian,
lagundu beti, Ama,
sendo jarrai daian.

11

Hainbeste zahar ta gaixo
etxe ta auzoan,
zaindu gaizuz, Ama,
mantupe gozoan.

12

Zure aurrean gagoz
kantari Lurdesen,
egizu, Ama, danok
zerura gaitezen!

A.Martzel